

GOI-SORABIERA ETA BEHE-SORABIERA

Ezinaren ezinean

Alemaniko ekialdean hitz egiten diren bi hizkuntzak ofizialak dira hitzunak bizi diren eskualdeetan. 25 urte badira lege aitortza lortu zutela. Alabaina, 20.000 herritarrek, alegia sorabiarren %1ak baino ez daki bi hizkuntza horietako bat. Behe-sorabiera bereziki ahul dago, 2.000 eta 4.000 hitzun artean baino ez ditu.

 MIEL A. ELUSTONDO

Hitz Adina Mintzo zikloaren baitako bigarren saioa egin zuten urriaren 21ean Gasteizen. Sorabieraz mintzatu zen Ivan Igartua (Gasteiz, 1972), EHUko Eslaviar Filologiako irakasle titularra.

Eslaviar hizkuntzen gaineko ikerlana eta errusieraren gramatika historikoa ditu argitaratuak, besteak beste, eta ikertzaile eta irakasle egonaldiak burutuak ditu Moskun, Parisen, Leipzigen eta Tbilisin. Hitzaldian, mendebaldeko eslaviararen barnean, hizkuntza lekitikoekin eta txekiera-eslovakierarekin batera azpitalde berezia osatzen duten goi-sorabieraz eta behe-sorabieraz jardun zuen.

Goi-sorabiera eta behe-sorabiera Alemaniako ekialdean hitz egiten dira, Cottbus/Chóšebuz eta Bautzen/Budyšin hirien inguruetan. Eta alea xehetzen hasi aurretik, sarrera hitz batzuk egin dizkigu Igartuak: “Saxonia eta Brandenburg estatuetan hizkuntza ofizialak dira, baina oso hitzun kopuru mugatua dute, 20.000 inguru, hau da, biztanleen %1”. Behe-sorabieraz den bezainbatean, hala eta ere, ahulago da hizkuntza, galzorian ere bai, Unescoren arabera, 2.000-4.000 hitzun dituela, herri txikietan. “Hirugarren Reicharen eraginpean etxe barruko transmisioa eten zen eta, egun, adin aski handi batetik gorakoek baino ez dakite behe-sorabieraz”. Eta hizkuntzaren galeraren ondorioz datorren beste galera bat, ukiezina: “Hizkuntz biodibertsitatea

galtzen da, besteak beste. Edo Rudi Keller hizkuntzalariak zioena, hizkuntzak hirugarren mailako objektuak direla; alegia, ez dira ez osagai natural puruak –zuhaitzak edo mendiak diren bezala, esaterako–, ez elementu artifizialak ere, mahai bat litzatekeen moduan. Hirugarren gune bat eratzen dute, kulturarekin estu lotua”. Hortik segitzen da eremu horri dagokion dibertsitatearen galtzea.

**LEGE AITORTZA**

Inondik ere, herrietatik hirira egiten asmatu zuen goi-sorabierak XIX. mendean, kultur berpizkundearen deiari jarraikiz, oro har. 1912an, bestalde, hizkuntzaren aldeko erakunde sona handikoa sortu zuten, Domowina elkarte, alegia. “*Aberria* da hitzaren esanahia. Ordukoak ditugu sorabiera biziberritzeko lehen pausoak, hizkuntza sistema aztertzeke lehen lan sendoak”, irakasleak esan digunez.

Hizkuntza eslaviarren koadroa egin digu Igartuak aurrera jo baino lehen: “Batetik, ekialdeko hizkuntzak ditugu: errusiera, bielorrusiera eta ukrainiera; bestetik, hegoaldekoak: bulgariara, serbiera, kroaziera, bosniera, montenegroera eta mazedoniera”. Eta, horiekin batera, mendebaldeko hizkuntzak hiru multzotan bereizirik: “Bata, txekierak eta eslovakierak osatzen dutena; bestea, polonierak, kaxubierak eta XIX. mendean galdutako polavierak eratua, eta, aparte, sorabiera, bi literatur hizkuntza dituena, eta hainbat dialekto eta transiziozko aldaera”. Besterik da aitortza ote duten, eta horri lotu zaio irakaslea. “Duela 25 urte inguru jaso zuten bi sorabierak lege aitortza, eskualde mailakoa betiere, eta ofizialak dira: Brandenburgon behe-sorabiera, Saxonian goi-sorabiera”. Administrazioan eta hedabideetan hein bateko ondorioa izan du aitortzak. Badute prentsa idatzia, elebarkarra, eta irrati-telebistetan era badute

saiorik. Hala ere, hezkuntzan izan du eraginik gaitzena lege errekonozimenduak.

'WITAJ' HEZKUNTZA PROGRAMA

Nonbait ere, Bigarren Mundu Gerraz gero aldatu zen hezkuntza egoera. "Ekialdeko Alemanian Sobiet Batasunaren pean gelditu ziren eskualdeok, eta hezkuntzan txertatu ziren sorabierak". Batetik, eredu elebiduna abiarazi zuten sorabiar zirentzat, eta ez zirentzat, aldiz, sorabieraren gutxieneko ezagutza bermatuko zuen irakaskuntza. Berrikitan, bestalde, egina dute urrats bat gehiago, iragan mendeko 90eko hamarraldiaz gero: murgiltze sistema. *Witaj* du izena. "Ongi etorri" programa, hau da, "ongi etorri hizkuntzara, ongi etorri kulturara". Haur Hezkuntzan hasi eta erdi mailako ikasketak bitartean dago txertatua. Igartuak dakikeenez, emaitza onak ditu *Witaj* egitasmoak goi-sorabierari dagokionean, eta eskasa berriz, behe-sorabierarenean, hain baita ahula haren egoera. XIX. mendearen amaieran 150.000 sorabiera hitzun bide ziren. Egun, 20.000, lehenago adierazi dugunez. Germanizazioa, industrialtzea, nazien garaiko jazarpen-debekuak... Hainbat izan dira faktoreak. Egun, hitzun kopuruari eustea dute lehen helburu, eta, hurren, hitzun berriak irabaztea.

GEROAK ESAN BEZA

Irakaslearen irudiz, sorabierak ez lukete, aurrera egin nahi-eta, bide malgar meharra besterik. "Indargunerik ez, dena, edo ia dena, dute ahulezia". Eslaviar hizkuntzen artean hitzun kopururik txikienak dituzte. Hala eta ere, ezaugarri erakargarrien jabe dira hizkuntzalarriaren begietara: "Sekula ez dira komunitate handia izan, hein batean berezi eta isolatua dira -gainerako herrialde eslaviarretatik alduak, batez ere-, eta horrek agian badu ikustekorik zenbait ezaugarri eustearrekin. Eslaviar hizkuntza gehienetan ez bezala, aditz iraganaldiaren forma bereziak gorde dituzte, eta singularra eta pluralaz gainera, numero duala ere badute, bi objektu izendatzekoa. Sorabiera biek ezik, eslovenierak beste hizkuntzak ez du horrelakorik". Eslovenierak, esan beharko da, bi milioi eta erdi hitzun ditu. "Jakina da germanieratik hainbat elementu har-



Ivan Igartua eslaviar hizkuntzetan aditua da eta berak eman zuen goi-sorabieraz eta behe-sorabieraz hitzaldia Gasteizen. Ondoko argazkian kale seinaleak bi hizkuntzatan, lehenengo alemanez eta ondoren sorabieraz.

tu dituztela sorabierak, dela lexikoan, sintaxian nahiz fonologian". Mendeetan luzatu den harremanaren ondorio, bistan dena, nahiz eragina norabide baka-rrekoa izan, alemaneratik sorabieretara.

Biziberritzeaz, goi-sorabierari dagokionean zazpi ahalak egiten ari dira, eta belaunaldi berrietan ageri da emaitza, hezkuntza sistematik eratorria. "Gazteen artean badirudi baietz, hitzun berriak irabazten ari dela goi-sorabiera, ttanttaka-ttanttaka bada ere. Sorabiar familiek eredu elebidunera edo murgiltzera bidaltzen dituzte beren seme-alabak. Besterik da sorabiar sendiak ez direnetan, baina hor ere bada hein bateko mugimendua. Zenbait familia kexu da ez dutelako sorabiar edo sorabieraren munduan sarrerarik". Inkesta soziolinguistikoetan irakurriaz ari zaitgu Igartua, sorabieren ezinaren ezinak agintzen duen etorkizun beltza iragarritz bezala. Orixeren harako hura, finean: "Geroak esan beza / herri bat izan zen / edota hats emaiogun / hontan iraun dezan". ●

SORABIERAREN NEURRIA KALEAN

Hizkuntza gatazkarik gabeko hizkuntzak bi sorabierak, nonbait. Berlingo Harresia eraitsi zutenean izaniko mugimendu autonomistak gorabehera, adorerik ez sorabiera hitzunek. Hiri handietako kaleetan neke da sorabieraz hitzik entzutea. Kale neurketarik egingo balitz, hutsaren hurrena litzateke emaitza. Ivan Igartuaren egia: "Besterik litzateke herri txikietan. Hirietan, sorabistika institutuaren inguruan beharko zenuke, sorabierarik entzuteko. Agian". Alegia, han ere ez genukeela ziurtasunik.